


Astekaria

BARRREN

elgoi



**Irakasleak
liburugintzan**

GARATE

JANTZI - DENDA

*Larunbat arratsaldetan
zabalik*



3 LAU HANKATAN

"Gauza gutxi ematen du poz gehiago, artista berri bat ezagutzeak baino." **Hasier Etxeberria**

6 ERREPORTAIA:

Euskararekiko grinak, Euskal Herri osoko Institutuetan erabiltzen diren diren bost testuliburu argitaratzera eraman ditu.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER DERITZOKU FUNTZIONARIOEN SOLDATAK IZOZTEARI?

Manolo Santos: "Adimistrazioaren krisi egoerak, funtzionarioen soldatetan eragin zuzena izan behar duela uste dut".

Imanol Garzia: "Ez da bidezkoa krisiaren pisua funtzionarioengan isurtzea".

12 BERBETAN: Edu arrillaga

SENTIMENDUAK ARGAZKIETAN ISLADATZEN

14 KIROLA:

GAIA: MORKAIKOREN 50 URTEURRENEKO LIBURUA KALEAN

ELKARRIZKETA: **Antton Mari Arizmendi**

17 KULTURA

MUSIKA EKITALDIAK SANTA ZEZILIAREN OMENEZ

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua	7410 08
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua...	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC) ..	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 20, larunbata: **ETXEBERRIA**
- 21, igandea: **ETXEBERRIA**
- 22, astelehena: **ORMAZABAL**
- 23, asteartea: **ORMAZABAL**
- 24, asteazkena: **ORMAZABAL**
- 25, osteguna: **ORMAZABAL**


26, ostirala: YUDEGO

OKINDEGIAK:

- 21, igandea: **EIZAGIRRE**



HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaria

Alberto Agirreazaldeg
Hizkuntza Arduraduna

Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Edurne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

Kazetaria

Ainhoa Lodoso

Maketatzailea

Maite Rementeria

Publizitatea

Nekane Etxaniz

Administrazioa

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak

Myriam Aldazabal, Alberto

Ansuategi, Isabel Ansola,

Joxin Arregi, Belen

Arrizabalaga, Bertso Eskola,

Agur Miren Barandiaran,

Hasier Etxeberria, Ina

Garagarza, Maite Iriondo,

KOKOE, Imanol Larrañaga,

Koldo Lizarralde, Aitor

Lodoso, Nerea Lodoso,

German Meabebasterretxea,

Jasone Osoro, Diana Perez de

Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor

Zabaleta

Banaketa arduradunak

Imanol Larrañaga

Inaxio Garmendia

Inprimategia

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

Tirada:3.000 ale

Lege gordailua:SS-1.038/92

ISSN:1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Gora artistak

Gauza gutxi ematen du poz gehiago, artista berri bat ezagutzeak baino. Batez ere, ezagututakoa benetako artista denean. Ez dago halako gauzarik munduan.

Artistak bakarti eta berekoiak izaten dira jeneralean. Batzutan uzkur eta bestetan ero, ez da ondo jakiten beraiekin nola jokatu. Batzuk arraultze egosiak bakarrik jaten dituzte, eta ur piskat noizean behin. Beste batzuk, ostera, ez dira sekula asetzen, eta txanpaina onenekin bakarrik mozkortzen dira edozein asteartetan. Batzuk zaratatsuak dira, eta isilak besteak. Haize eta trumoi, ezti eta limoi, ekaitz eta bare, itsaso eta desertu, guztietatik eukitzen du artistak bere arimako azalaren pean izkutatuta.

Berak ere oso ondo ezagutzen ez duen indar haundi batek, kanporarazten dizkio barruak. Pintura, lokatza, letra bat, lau nota edo irudi pare bat, nahikoa ditu tresna gisa. Eta lanean hasten da. Eta ez daki oso ondo, sufritutuz, ala gozatuz, lehen inon ez zegoen edertasun berri bat sortzen du, jainko txiki batek bezala.

Baina nekatu egiten da artista. Hustu egiten da, botila erori bat bezala, eta orduan ume txiki-txiki bihurtzen da. Ume jaioberria ia. Eta tristura, nekea,

poza... denak korapilatzen zaizkio barruan berak sortutakoa ikusten duenean, baina ume txiki bat denez ez du jakiten zer egin, nora jo, zer jan edota non dagoen Polo Norte. Galdu egiten da erremediorik gabe.

Artistak ez dauka beste aukerarik. Gaisoturik bezala dago. Behin eta berriz gertatuko zaio gauza berbera. Behin eta berriro hustuko-galduko da, inon ez zegoen edertasuna sortzeko. Eta noraezean ikusiko dugunean, burutik ez dagoela ondo esango dugu, haizea daukala ganbaran. Eta egia da gainera.

Baina poliki-poliki, benetako artistak, gauza bat eta beste sartuko ditu ganbaran. Haizea leiho eta zirrikituetatik joango da ihesi, eta gauza bat bera ere gehiago sartzen ez ziaonean, ez daki ondo sufritutuz ala gozatuz, berriro sortu egingo du.

Gero guri, edertasunaren aurrean jartzen garenean, arima eta zentzumenak oro, dantzan jarruko zaizkigu eta artistari argibideren bat, esplikazioren bat, eskatuko diogu edertasun guztia jasotzen asmatzen ez dugulako. Baina alferrik. Izan ere, artista sortu berritan, ume txiki bat da beti, eta apenas hitzik esan ezinik, erantzun gabe, berak sortutako artelana seinalatuko digu behatzarekin, eta joan egingo da isilik Geografiako liburuetan Polo Norte non dagoen topatzera.

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



Haurtzaindegia

Lehendabizi, ikaslearen kostu handia jasateko gurasoak gertu ez zeudenez irailan zerbitzu hori ez zela hasiko adieraziz, Ikastolak uztailean bidalitako idatziaren ondorioz izan dela gure partaidetza haurtzaindegian; hori da gogorarazten dizuedana.

Bigarren, urtarrilera arte burujabetasuna Ikastolaren esku dagoela; beraz, oraingoz Herri-diruaz ari gara mantenitzen norbanako haurtzaindegi bat. Honek ez badu egiaztatzen herrian dauden zerbitzuen mantenimenduarekiko gure (EAJren) filosofia, zuek ikusi nahi ez duzuela da.

Hirugarren, guraso-

en, langileen eta Udaletxearen aldeko ahalegin eta eskaintzasunez asmo egoki bat osatu dugu, arazoizko ikaslearen kostu batera hel gintezkeen haur kopuru bat lortzeko, pertsonala, kuotak murriztuz (uztaileko lehengo 27.000tik oraingo 23.000ra).

Eta bukatzeko, nire filosofia lanean jarraitzea dela; aurki ditzagun irtenbideak eta aldi berean, animatu egiten zaituztet zuen gogortasuna joera honetara bidera dezazuen eta horrela bere etorkizuna ziurtatzeko denon artean kostu egoki bat lor dezagun.

Kultura Batzordeko
lehendakaria
Gillermo Garate

Ikasturte berriari lanerako prest

Hainbat urte pasa ondoren, Ikasle Abertzaleok berriz indarra hartu dugu Elgoibarren.

Aurten eta hurrengo urteotan edukiko ditugun ikastetxe eta Euskal Herri mailako arazoei gogor aurre egiteko asmoz bildu gara.

Gure lana ikasleen gehiengoaren laguntzarekin bat eginda planteatzen dugu. Ikasle bezala ditugun arazoak ez dira soilik ikastetxe barruan gelditzen, selektibitate frogara, euskal eskola publiko eta tasen igoera ere ez dira gure arazo bakarrak.

Etorkizunean izango ditugun arazoei aurre egiteko, hemendik aurrera

ESKUTITZAK

gogor arituko gara lanean (soldaduzka, etxebizitza, sexu-berdintasuna, lana...)

Gure lana egiteko orduan ikasleen laguntza eskatzen dugu, zuzendaritzaren oztoporik aurkitzea ere ez dugu espero.

Besterik gabe, ikastetxean edo kalean ikusiko gaituk, ikasle.

Ikasle Abertzaleak

OHARRA

Ez ahaztu, eskutitzek, idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan behar dutela. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inzialak soilik agertuko dira.



San Frantzisko, 42
Tel. 74 28 64

Hiru hilabetetako aseguruaren prezioak errekarrik gabe.

Gipuzkoa premier, auto berrientzat "todo riesgo" irtenbidea.

30 urtetik gorakoentzat eta gidabaimena bi urte baino gehiagoko aintzinasuna dutenentzat prezioak	Experta Poliza	Plus Experta Poliza	Poliza 4 (300.000 ptako kenketa)	Gipuzkoa Premier
FORD FIESTA CLX 1.1 OPEL CORSA 1.4 SWING 4 P RENAULT CLIO RN 1.2 SEAT IBIZA SX 1.2	14.688	17.681	21.344	27.298
OPEL ASTRA GL 1.41 4P FORD ESCORT CLX 1.6 RENAULT 19 RN 1.4 4P SEAT IBIZA SLALOM CITROËN ZX REFLEX 1.6	16.879	20.255	24.660	34.479
FIAT TEMPRA 1.9 TD SX OPEL VECTRA COMFORT 1.7 TD PEUGEOT 405 GRD RENAULT 21 TI ABS A.A.	18.905	23.392	29.093	47.880



AZKUE

Argazki hau Jose Antonio Osorok laga digu eta berau, 1953. urtean, Santa Zezilia egunean, azaroaren 22an aterata dago parroikiko eskilaren aurrean. Argazkikoak Elgoibarko Musika Bandakoak dira eta zuzendaria, Julian Iriondo Bergaratxe zen.

Ikus dezagun zeintzuk osatzen zuten garai hartan musika banda: Ezkerretik eskumara, makurtuta: **Pedro Ortiz de Villalba eta Enrike Arriola.**

Zutik: **Angel Riaño, Jose Zubiaurre, Jose Maria Ruiz, Agustin Arakistain, Julio Bueno, Santiago**

Ezenarro "Santi bonberua", Julian Iriondo, J. Ansola, Felipe Igartua, Jose Izagirre, Fernando Azpiazu, Felipe Gabilondo, Luis Mari Iriondo, Luis Arriola, Jose Martinez, Emiliano Mata, Juan Galarraga, Felix Lodoso, Pedro Regil, Jesus Etxabe, Aurelio Diego, Juan J. Arrillaga, Jesus M. Ansola, Jesus Elorza, Daniel Lasa, Nazario Armendia, Migel Gabilondo, Eladio Gorostiza, F. Lazpiur, Joaquin Gabilondo eta Juan Eguren.

40 urte dira argazki hau atera zela. Horregatik ezin ahaztu gizon hauei eskerrak irau duela bizirik gure herriko musika tradizioak.



Salvador Celaya
570 ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
Errosario 22. Tel: 74 04 94



Eskulanean saiatzen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak
GOZOTEGIA
San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45



DEKORAZIOA
PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK
Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

Irakasleak liburugintzan

Bost badira ere testu liburuen egileak, lau ditugu elgoibartarrak: Angel Ugarteburu, Iñaxio Garmendia, Andres Alberdi eta Myriam Villasante, alegia. Taldeko bostgarrena, Irungo Institutuko irakasle den Markos Balentziaga dugu. Azken hau ezik, lauak dira Elgoibarko Batxillergo Institutuan euskara irakasle, batek ere euskara ikasketak burutu ez dituen arren. Euskararekiko grinak, Euskal Herri osoko Institutuetan erabiltzen diren bost testuliburu eta bi edizio berri argitaratzera eramán ditu.



Elgoibarko Euskara Mintegiko irakasleek zazpi testu liburu kaleratu dituzte gaur arte.

1985. urte inguruan ikasketa zentru ertainetan D erduentzako testu libururik ez zegoela, ordura artekoa apunteekin egin behar, finkoa litzatekeen zerbaiten beharraz ohartu ziren Elgoibarko Institutuko Euskara Mintegiko irakasleak. Testu liburuak ikasgaiari seriotasuna emateaz gain, baduela nolabaiteko efektu biderkatzailea esan digute Mintegikoek, irakasle zein ikasle anitzek erabil baititzakete.

1986.ean, eskuartean zerabiltzaten apuntekin, eta lanorduetatik aparte ordu estra batzuk sartuz, lehen liburua, "Euskal Hizkuntza eta Literatura 1" izenekoa, eman zuten arigitara. 1986tik 1989ra bitartean, urtez urte Elgoibarko Euskara Mintegiak sinatuta eta "Euskal Hizkuntza eta Literatura" izenburupean, liburu bana argitaratu zuten. Tartean 1987.ean, "Hiztegia Aberasten", ikasleek hiztegia lantzeko egindako ariketa bilduma atera zuten.

Bost liburu hauek lantzen talde osoa aritu zen, baina 1992.ean, berriro edizio berriarekin hasi zirenean, Iñaxio Garmendiak laga egin zuen.

Liburu berriak atera bitartean, urtebeteko atsedena hartu zuten Mintegikideek. Haserako liburu mota hura galtzeaz zegoela ikusi zuten filosofia berria baitzetorren LOGSERekin. Erreflexio garai baten ostean, erreformak eskatzen zuenari begira, edizio berriua eta aldatua atera dute.

CAFE
PIZZA
TEATRO

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

Fotero

OKINDEGIA
OPIILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

ELGOIBAR

Liburu kopurua eta hedapena

- 1986- "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (BBB 1. maila) 22.000 ale.
- 1987- "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (BBB 2. maila) 13.900 ale.
- 1988- "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (BBB 3. maila) 12.000 ale.
- 1989- "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (UBI) 8.000 ale
- 1987- Hiztegia Aberasten, 4.500 ale.
- 1992- (Edizio berritua) "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (1. maila) 8.000 ale.
- 1993- (Edizio berritua) "Euskal Hizkuntza eta Literatura", (2. maila) 5.000 ale.

Metodologia berriak ikaslea protagonista izatea du helburu. Liburuak askozaz arinagoak, erakargarriagoak, koloreztatuak eta bisualak dira. Hauekin batera, lan koadernoak ditu ikasleak; ebaluazio bakoitzeko bana. Koardeno hauetan proiektu praktikoak proposatzen zaizkio ikasleari eta ikas metodua, ondorioz, askozaz praktikoagoa da. Ahozko euskal literatura eta bertso-laritza lantzeko, kaseteak erabiltzen dira. Ikasleen beharrei erantzuna izan nahi du metodologia honek.

Diru laguntzak ez dira oso oparoak izan. Haseran jaso zuten Jaurlaritzatik diru zerbait eta materialea ere bai, baina harrez geroztik Elkar eta Gipuzkoako Ikastolen Federazioarekin zuten lotura editoriala zela eta, ez dute subentziorik jaso gehiago. Autore eskubideei dagozkien partetik jasotzen duten diru kopuru urria da liburugintzatik ateratzen duten diru sarrera bakarra. Beraiek esan diguten bezala, proiektuan lan egitearen arrazoiatariko bat ez da aberastearena izan, alegia.

Elgoibarko Euskara

Mintegiak egindako testu liburuak Euskal Herri osoko zentruetan erabiltzen dira. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako zentruetz aparte, Nafarroako zentruetaraino ere hedatu da. Getxoko irakasle batzuek egindako testu liburuak hauen konpetitzaileak omen dira baina elgoibartarren testu liburuek zabalkunde handiagoa izan dute.

Herri mailan Euskara Mintegikoak liburugintzan airtu diren lehenengoak izan dira. Lan serio eta handia burutu behar izan dute zazpi liburu argitara emateko. Dena den, momentuz, alde batera lagata dute testugintza. Izan ere, bi arrazoik bulutzatuta. Batetik, autodisziplina handia behar da ordu libreetan horrelako lana egiteko eta noski, nekea ere galanta izaten da. Bestetik, erreformarekin oinarritzko hezkuntza BBBko lehen eta bigarren mailara arte luzatuko da. Horregatik BBBko bigarren mailara arteko liburuak egin dira. Hezkuntza Sailak Batxiler berriaren edukia zehazten duenean lanari ekingo diote berriro.



Andres Alberdi.
43 urte. Getarian jaioa. Filosofia ikasketak burutu eta 23 urterekin Elgoibarrera etorri zen Ikastolan klaseak ematera. Zazpi urtez bertako irakasle eta azken lauak zuzendari izan eta 1980.ean, Batxilergo Institutuan klaseak ematen hasi zen. Katedra atera eta beste hiruekin batera testugintzari ekin zion.



Myriam Villasante.
Elgoibarren jaioa 1960. urtean. Historia eta Geografian lizentziatua. 1982. urtean Ikastolan urtebetez klaseak eman ondoren Institutura joan zen euskara klaseak ematera. Gaurdaino, UNEDen euskara klaseak ematen jardun du. Taldeko emakume bakarra da.



Iñaxio Garmendia.
Azpeitiarra jaiotzez. Andres Alberdik bezala 43 urte ditu eta Filosofian lizentziatua da. Ikastolan lengüaje klaseak eman zituen. 1982.ean, Institutura joan eta bertan euskara irakasten hasi zen. Lau urtez bertako zuzendari izan da. 1992. urtean denbora faltagatik testugintzari laga zion.



Anjel Ugarteburu.
Berriatuan jaioa 1942. urtean. Taldeko beteranoa beraz. Eibarko Ikastolatik Elgoibarko Ikastolara etorri zen 1978. urtean, Andres Alberdi zuzendari zela. Ondoren Institutuko irakasle eta zuzendari une honetan. Filosofian lizentziatua, hau ere. Urte askotan Elgoibarko Bertso Eskolako arduraduna izan da.

Zer deritzozu funtzionarioen soladata izozteari?

Funtzionario publikoen soldaten balizko izozketaren gaia pil-pilean dagoen une honetan, erabaki honen aldeko ala kontrako galderari, nire iritzia aldekoa dela esan behar dut.



Nire iritzia arrazoi-tzen hasi aurretik, argi utzi nahi nuke funtzionarioek paper garrantzitsu bat betetzen dutela gizartearen martxa onean. Eta gainera, gure eguneroko bizitzan onerako eragin zuzena dutela iruditzen zait baldin eta beraien lana ondo betetzen badute.

Hau garbi laga ondoren, bidezkoa izango da gure herri eta enpresetako egungo egoeraren azterketari ekitea. Krisi ekonomikoak azken hiru urteotan lanpostuen galera, lan erregulazioa -diru sarreretan dakarren beherapenarekin- eta soldatak jasotzeko aukerarik eza ekarri ditu. Enpresa askok nahiko arazo dute hileroko soldatak ordaintzeko eta ezinezkoa suertatzen zaie konbenioak jarritako soldata goerak ordaintzea.

Norbanakoen eta enpresen diru-sarrerak gutxitzean, zerga bilketan jasotako diru kopurua asko bajatzen da,

erakunde publikoek arazo larriak dituztelarik euren beharrei aurre egiteko.

Administrazioak ere bizi duen krisi egoerak, funtzionarioen soldatan eragin zuzena izan behar duela uste dut, gainontzeko enpresetan gertatzen den bezalaxe.

Beraz, krisiak langileoi gure poltsikoetan eragiten digun moduan, funtzionarioei ere eragin beharko liekela iruditzen zait. Eta momentuz ikusteko badago ere, eta nahiago nuke ikusiko ez bagenu, guztiz normala iruditzen zait soldatak izoztea, administrazioaren beste proiektu batzutan diru-mozketak egoten diren bezalaxe. Azken finean, funtzionarioak gizartearen zati bat direla iruditzen zait. Eta hauei ere, besteoi bezalaxe, momentu onak disfrutatu eta txarrak sufritzea tokatzen zaie.

Beraz, bai soldatak izozteari.

Manolo Santos
(Erredakzioan itzulia)



Iritzi publikoaren gehiengo bat funtzionarioen soldata izoztearekin ados agertzen da, beraien lanpostuaren segurtasuna besteak beste, aipatuz.

Segurtasun hau, esan beharra dago, ez litzatekeela funtzionarioen pribilejio bat izan behar soilik, langile ororen eskubide bat baizik, Konstituzioan azaltzen denaren arabera.

Funtzionarioak ez dira, ez gara, une honetan Estatua jasaten ari den krisiaren erantzule zuzenak, ezta gutxiago ere. Ez da bidezkoa, beraz, krisi honen pisua guregan isurtzea. Arbitrariora da, alde batetik, behe mailako funtzionarioen soldatak izoztea eta bestalde, "kontratu blindatuez" postu zehatz batzuk, goi mailakoak noski, bultzatzea, Administrazioaren hitzetan, enpresa pribatuetara "fuga de cerebros" delakoa gerta ez dadin. Hemen, Euskadin, ejekutiboak hartutako neurriak onartzeko eskatzen ari zaizkigu. Hain zuzen, neurri hauek ez dituzte iaz sindikatuekin sinaturiko akordioak errespetatzen. Baina halere, nolabaiteko ulermen bat eskatuaz, soldatak izozten dizkigute. Eta hara non beste hainbat argudioaren artean aipagarri bezala, nola beraiek, neurri horiek hartu dituztenak, bitzita guztirako

diren pentsio kopuru astronomikoak ordaintzen dizkieten Euskal Gobernuan bi urtez bakarrik aritu izan diren kontseilari eta kontseilariordei.

Ez, hau ez da ez serioa eta ez koherentea. Ezin zaie batzuei ez jateko eskatu eta beste batzuk gizendu.

Administrazioaren zarrastelkeria edo despilfarroa ez datza funtzionarioen soldatan, Administrazio beraren funtzionamenduan baizik, hainbeste gasturen kontrol ezean, dietetan, bertako teknikoek egin ahal izan eta enpresa pribatuei agintzen dizkieten ikerketetan, eta izkutuan egiten diren eta kanporatzen ez diren hainbat eta hainbat justifikatu gabeko gastuetan. Guzti hauek milaka milioi osatzen dituzte eta ez dute inolako mozketarik jasaten.

Noski, Administrazioak, ohi duen bezala, neurririk errazenari kolpe egiten dio, funtzionarioen soldata mozteari, alegia, baina honez gain ez badira beste irtenbide batzuk bilatzen alferrikako neurria izango da hori bera ere.

Imanol Garcia

Zer deritzozu funtzionarioen soladata izozteari?



Kristina Gonzalez

27 urte, irakaslea

Oso gaizki iruditzen jat ni funtzionarixua naizelako. Irakaskuntzan egiten dot lan eta ni zuzenian afektatzen nau.



Izaskun Arrese

29 urte, gizarte laguntzailea

Gerrikoa estutu behar bada lanpostu finkoa dutenetatik hasi behar. Abantaila asko dituzte eta soldatak mozten hasi behar bada beraiek izan daitezela lehenengoak.



Jose Antonio Iñurrieta

35 urte, udaltzaina

Ondo iruditzen zait baina ez funtzionarioei bakarrik. Orain entzuten dena neurri propagandistikoak dira, ze funtzionarioen soldatak aspaldi daude konjelauta.



Pedro Cacheda

57 urte, udaltzaina

Ni funtzionarioa naiz eta ez zait zuzena iruditzen. Soldatak bi edo hiru urte-tarako izoztuko dituztela diote eta hori ez dut batere ondo ikusten.



Manuel Soto

59 urte, egunkari saltzailea

Niri gobernuak 42.000 pta. ematen dizkit eta etxean 6 pertsona gara. Horregatik, gutxi irabazten duen jendea dagoen bitartean ondo iruditzen zait.



Isabel Azepeleta

24 urte, ikaslea

Ondo. Pribilejio mordo bat daukate eta hori kendu egin beharko litzateke. Egiten duten lanaren arabera kobratu beharko lukete.

EIBAR

OSASUNDEGIA

- Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04*
- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Barne medizina | |

**Logopedia
Zentroa**



Isabel Gil Arrocha

- Hizkuntz arazoak
- Hizketa arazoak
- Ahots arazoak
- Irakurtzeko eta idazteko arazoak

**Bidebarrieta, 27-B
Tel. 11 84 71 EIBAR**

Europako Mus Txapelketa Aterpe tabernan

San Rokeko Aterpe tabernan Europako Mus Txapelketarako sailkapenerako baliagarria izango den mus txapelketa jokatu da hilaren 27an, larunbata, arratsaldeko 4etan. Izena emateko azken eguna txapelketa egunean bertan bukatuko da, hasi baino ordu erdi lehenago. Bikote bakoitzeko prezioa 4.000 pezetakoa izango da. Irabazleak 25.000 pta. eta bigarrenak 10.000 pta. eta finalerdietarako txartela jasoko dute. Hirugarren eta laugarren sailkatuek txanpan botila bana irabaziko dute. Txapelketak, *Generali* Aseguruetearen babesia izango du.

Gazteentzako begirale ikastaroa antolatu du Elgoibarko Izarrak



Galizia etxekoen "Festa do magosto"

Urasandiko Galiza Kultur Etxekoen "Festa do magosto", edo Euskal Herrian gaztañerre eguna litzatekeena, ospatu zuten pasa den igandean, hilak 14. Gaztaina mordo bat erre zuten danbolinean galiziarrek, eta herritar ugari bertaraino hurbildu zen gaztainaz gain, ardoa eta fruituak dastatzera.

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak herriko gazteei (18-25 urte bitartean) zuzenduriko begirale ikastaro bat antolatu du. Elkarte honek datorren urterako dituen asmoen artean, OHOKo haurren euskara erabilera suspertzeko plangintzaren prestakuntza dago. Ikastetxean eta familian jasotzen duten euskararen ezagutza, kaleko eta denbora libreko erabilerarekin

uztatu nahi dute Elkartekoen.

Haur hauekin lanean hasteko begirale talde serio bat eratzea da Elkartearen helburua, eta horregatik antolatu dute ikastaroa.

Elkartekoen esanetan, hasteko 30 laguneko taldea osatzeko asmoa dute eta "haurren mundua gustukoa izatea eta ondo pasatzeko gogoia edukitzea" dira baldintza garrantzitsuenak.

LIZZY
Erroscario, 25 - 74 23 02
GAZTEENTZAKO
MODA

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

ARRATS
Pub
Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58

ELKARRI, elkarrizketa bultzatzeko mugimendua, aurkeztu dute Elgoibarren

Pasa den astean, *Elkarri* elkartearen, elkarrizketa eta akordiorako giza mugimenduaren aurkezpen ekitaldia egin zen Elgoibarren. Ikuslego aldetik, arrakasta erabatekoa izan zela adierazi zuten antolatzaileek, guztira, 80 lagunetik gora bildu zirelarik. Laster urtebete egingo duen elkarte gure herrian aurkezteko, Gipuzkoako koordinatzaile den Maixux Rekalde, Amaia Vazquez Gipuzkoako zonalde bateko koordinatzailea, eta Elgoibarren *Elkarri* osatzen duten bi kidek hitzaldia eman zuten Kultur Etxean.

Elkarri-ren helburua "Euskal Herriaren gatazka egoera gainditzea" litzatekeela adierazi zuten hizlariak, proposatzen dituzten alternatibak elkarrizketa, akordioa eta kontsultaren bidetik joango liratekeelarik. Izan ere, *Elkarri* bitartekaritza lana egingo luke Euskal Herriko agente ezberdinen artean, "mugarik gabeko elkarrizketa bultzatuz". Era berean, elkarteak lan egingo du elkarrizketa hori akordioan gauza dadin. *Elkarri* "akordio hori gizabanakoen iritziarekin kontrastatzea" eskatzen du.

Mendietako buzoiak berritzen

Elgoibarko hiru mendizale, Modesto Mujika, Rogelio Vela eta Primitivo Martinez Euskal Herriko hamabost mendietako buzoiak margotzen ibili dira iaz hasitako lanari jarraiki. Asmoa, egoera kaxkarrean zeuden buzoiak errekuperatzea izan da. Aurtengo ekinaldian honako mendi hauetako buzoiak margotu dituzte: Kalamua (767 m), Garagoitxi (720 m), Akondia (748m) eta Aitzketakoak Eibarren, Krabelin Aitzekoa (612 m) San Prudentzian, Sesiarte (743m) eta Agidokoak (740m) Zestuan, Itxumendikoa (701m) Elosun, Elosumendikoa (836m) Bergaran, Erniokoa (1.072m) Bidanian, Erdellakoa (678m) Elorrioren, Intxortakoa (737m) Elgetan, Santa Eufemia (697m) eta Bedartzandikoak (690m) Aulestian eta Akarregi (438m) Markinan.



UNIFORM

JUARISTI Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- Ez dauka mantenu beharrik
- Haizea eta urarentzat isolatua
- Kolore efektu ikusgarriak
- Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA:
Ubitarte, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA:
Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94

Sentimenduak argazkietan isladatzen

Edu Arrillagak Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen SUATATU saria irabazi berri du "Complices del tiempo" lanarekin. 27 urte dituen argazkilari gazte honen historia, ordea, duela sei bat urte hasi zen, Bartzelonan. Bertan burutu zituen argazkilaritza

ikasketak. Karrera amaitu aurretik proiektu bat aurkeztu behar zuela eta, Guatemala aldera joan zen pare bat hilabetez. Argazki sorta majo bat ekarri zuen handik itzultzean eta Londres-ko "Independent" aldizkarian argitaratu zizkioten.

- Zer da argazkia?

- Sentimendu asko isladatzen dituen bizitzako une bat.

- Zer ez zenuke sekula egingo argazki bat ateratzeagatik?

- Bizia jokatu. Nire lagun bat Bosnian egon zen. Argazkia ateratzen zegoela berari tiroka ari zitzaien tipo bat ikusten zuen kamararen telex-etik. Argazkilari hobea al da horregatik?

- Non dago argazki on bat ateratzearen magia?

- Buruan. Begia, ikusmena, buruan ematen den guztiaren jarraipena baino ez da. Garrantzitsuena irudimena da eta, batez ere, pazientzia. Argazki on bat ateratzeko aurretik txar asko atera behar dira.

- Zergatik erabiltzen duzu txuri-beltza bakarrik?

- Kolorea kimika hutsa delako. Argazkia ateratzen duzu, laborategira eramaten, bertan lantzen dute eta zuk prozesu horren emaitza jasotzen duzu. Zuri-beltzarekin, ordea, sormena gartzten da. Nik nere laborategian egiten dut lan, neure erara jokatzeko argiarekin, kasuaren arabera argi gehiago edo gutxiago eman ez eta abar...

- Baina kasu batzutan ez al du bizitasunik galtzen?

- Hori lortu nahi duzun argazkiaren arabera dago.



" Kolorea kimika hutsa da, zuri-beltza sormena".

Jaia, ohiturak, jantziak interesatzen bazikizu, proposagoa da kolorea. Nik, ordea, jendearen sentimenduak isladatu nahi ditut argazkien bidez eta horretarako egokiagoa iruditzen zait zuri-beltza.

- Goazen Guatemala aldera...

- Pare bat aldiz izan naiz bertan, Todosantos Cuchumatan izeneko herri batetan, 2.800 metrotara.

Argazkiak ateratzerakoan azkenaldian nahiko oztopo jartzen dituzte, kokoteraino daude turistekin. Beraien konfidantza lortu behar da, laguntzeko prest zaudela erakutsi, lagun

bezala ikusten zaituztenean ez da arazorik egoten. Nik polaroid bat eraman nuen, horrela, mementuan ateratako argazki haiek beraiei oparitzen nizkien. Izugarri gustatzen zaie argazkiak edukitzea!

- "Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du".

- Irudiaren eta hitzen arabera dago, baina irudia ona bada bai, gehiago balio du.

- Zer da "fotogenia"?

- Pertsona bakoitzak enkantu berezi bat dauka. "Fotogenia", argazkilariaren arabera dago, neurri handi batean, eta argazkilari horrek beste pertsonarekin

duen harremanean. Zenbat eta konfidantza handiagoa izan haien artean, argazkia ere naturalagoa aterako da, hobea.

- Ba al dago inspiraziorik argazkigintzan?

- Inspiraziorik hobereana argazkilari onenen lan bikainak ikusi eta horietatik ikastea da.

- Ofizio izan eta afizio bilakatu zen ala afizio zena ofizio bihurtu?

- Afizioa zen, argazkiak egiten ahalik eta hobekien pasatzea. Gero bihurtu zen ofizio eta orain ofizio eta afizio, biak dira.

- Edu, zein da zure helburua argazkilaritzan?

- Ahalik eta argazki gehien ateratzea, erakusketak egitea, liburuak argitaratzea, neure lana errekonoiztea... Sari bat irabazi arte inork ez du zuk egindakoa kontutan hartzen, eta zure lana ez da desberdina, edo hobea, lehiaketa batetan txapeldun ateratzeagatik.

- Proiekturik epe laburre-ra?

- Koldo Lizarralde eta biok elkarlanean gabilta galdu diren, edo galtzear dauden lanbideak berreskuratzen. Guzti horien bilduma egin nahi dugu, Koldok testuak lantzen ditu, ni argazkietaz arduratzen naiz.

Jasone Osoro

Belen Etxeberria
Udaletzeko langilea



- **Egia al da funtzionarioek ez duzuela funtzionatzen?** - Ez. Irudi hori eman izan da baina ez da egia.
- **Administrazio publikoa ala enpresa pribatua?** - Bixak ezagutu izan ditut eta bixetan ibili izan naiz gustura.
- **Merezi baino gehiago kobratzen al duzue?** - Nik uste dot ezetz, ez, ez.
- **Langabeziak galerazi al ditu inoiz loa?** - Horixe baietz, guk langabeziarik ez izan arren inguruko egoerak ere kezkatzen gaitu.
- **Funtzionarioei soldata izoztu ezkeroko asko berotuko al zarete?** - Ez dakit zelan egongo dan lapikua, politiko eta sindikatuen arrazoiak entzungo ditugu eta horren arabera...
- **Grebarik bai ala ez?** - Langileen ordezkariak esaten dabena egingo dugu.
- **Ez al zarete langile pribilegiatuak?** - Beti irabazi izan dogu tailerretakuak baino gutxiago eta inor ez da gutaz akordatu. Orain, krisia dagoenean al gara pribilegiatuak?
- **Lau egun lan eta hiru jai. Zer deritzozu?** - Gauzak ekonomikoki oso gaizki daudela esan nahi du horrek, ez dot pentsatzerik nahi.
- **Noizko babes ofizialeko etxeak Elgoibarren?** - Proiektu bat egiten ari dira. Nik uste dot bi urte beharko direla asko jota.
- **Etxe berriak egin ala zaharrak bete?** - Lehendik daudenak bete behar dira eta gero merkeak egin.
- **Noizko Udaletzeko berrikuntzak?** - Diru asko behar da horretarako eta orain ez dago.
- **Elgoibarko eraikuntzarik politena?** - Altzolako Dorrea.
- **Eta zatarrena?** - Hainbeste daude!!
- **Maite zaitut: esatea ala entzutea. Zer nahiago?** - Nik esan eta berehala berdina entzutea.
- **Feminista ala femenina?** - Femenina.
- **Zein da Elgoibarren bota behar den horma?** - Langabezia.

Jasone Osoro

BERTSOTAN

**EUSKAL
TESTUGINTZA**

Doinua:

“Aizak hi, mutil mañontzi”

Bost lankidek elkarrekin erabaki genuen fin euskararentzat metodo on bat behar zela egin.

Lanari ekin ta ekin oportretan ere berdin “txantxetakoia ez zela izango ondotxo genekin”

Horra aurrean fruitua urte askotan lortua liburu, hiztegi eta kasetez dago osatua.

Ailedi nork jarraitua gure bide urratua !
“Irakaskuntzak irabaztea hori da kontua”

Angel Ugarteburu


ASEGURUAK
San Bartolome 15
Tel. 74 3037

KATIUSKA
T a b e r n a
Errosario 28. Tel. 74 0038 ELGOIBAR

PUBLIZITATEA
74 41 12

Elgoibartarrak Behobia-Donostia lasterketan

Pasa den igandean elgoibartar mardoska bat Behobia-Donostia lasterketan izan zen. Helmugara heldu zen lehen elgoibartarra Jose Cruz Montes izan zen. 6.000 korrikalariren artean, 55. postuan heldu zen helmugara 1:10 minutuko denbora eginez. Hona hemen lehen 10 sailkatuen izenak eta denborak:

- 1-Jose Cruz Montes 1h10m (55)
- 2-Iñaki Konde 1h16m (224)
- 3-Jose M. Fernandez 1h19m (439)
- 4-J.Ramon Ortuoste 1h20m (517)
- 5-Javier Iriondo 1h20m (545)
- 6-Moises Andonegi 1h21m (577)
- 7-Iñigo Etxaniz 1h21m (579)
- 8-Antonio Fernandez 1h21m (585)
- 9-Jesus M. Makazaga 1h22m (685)
- 10-Mikel Legorburu 1h26m (1077)

12 domina Ibai gimnasioarentzat

7 eta 13 urte bitarteko neska-mutuez osatutako Ibai gimnasioko talde bat Plaentxin izan zen pasa den larunbatean, hilak 13, infantil mailako txapelketan. Ibaikoek 12 domina lortu zituzten guztira: Zuriñe Polok, Aitor Mugerzak, Xabi Gonzalezek eta Gorka Garatek urrezko domina eskuratu zuten. Zilarrezkoa, Egoitz Mora eta Mikel Muñozentzat izan zen eta brontzezkoa, Maialen Morak, Zuhaitz Azpiazuk, Josu Idiakezek, Juan Jose Martinezek, Aitor Gabilondok eta Hodei Ostolazak lortu zuten. Elgoibartarrak Gipuzkoako herri ezberdinetako 300 neska-mutulekin lehiatu behar izan zuten dominak lortzeko.



Anton Mari Arizmendi:


“Morkaikorekin mendirako zaletasuna piztu nahi izan dugu”

- Zeintzuk izan dira Morkaikoren direktibaren asmo eta helburuak? - Juan zan urte bukaeran enteratu ginan aurreko direktibak lagatzeko zedela. Kuadrilari hori egiteko moduan geundela ikusi gendun eta sartu ein ginan. Helburua, mendizaletasuna berpiztia. Azken urteotan behea jota zauan elkartia, eta aurrean 50 urterena izanda, bultzada bat eman nahi izan diogu.

- Zein ekintza izan dira garrantzitsuenak? - Euskadiko Eskalada txapelketa inportantia izan zan, batez ere, gaueko exhibizioa. Antolakuntza aldetik Finalista astian ere saiatu ginan jendearengana iristen. Finalista eguna bera, oso ondo irten zan. Mendi irteeretan ere jendea hasi da apuntatzen. Bataz beste 40 lagun egon dira.

- Zein erantzun jaso duzue jendearen aldetik? - Gehienetan oso ona, baina batzuetan jende aldetik partizipazio eskaxa euki dugu. Eskolen laguntza eskatu dugunian, haurrekin irteerak egiteko, ez da ondo irten. Pasa dan igandian egin gendun mendi irteeran oso ume gutxi egon zian. Beharbada ez genuen bide egokitik jo.

- Morkaikoren 50 urteak biltzen dituen liburua ere egin duzue.



Bai. Urte haseran komentatu genuen proiektua da, liburua eta argazki erakusketa eta artxiboa egitea. Urtean zihar gauzatu da eta aste honetan kaleratu dugu. Gu oso gustora gelditu gara. Lan polita da eta irakurtzeko gainera oso arina. Gainera, argazki asko dauzka.

- Zein izan da direktiban egotearen alderik gogorrena? - Ordu asko sartzen direla eta gero muturrak ikusi behar etxean. Eta onena, antolakuntza aldetik dena ondo urten dala.

- Direktiban jarraitzeko asmorik? - Berez beste urtebete egin behar dogu. Laguntza gehiago topatzen badugu, gu piskat libratzeko, beste bi urte egiteko prest.

● Adina: 27.

● Hobbyak? Futbol sala eta mendia.

● Gustoko dituzu antolakuntza lanak?

Bai, txikitatik.

● Mendia, udan ala neguan? Udan ibiltzen naiz baina neguan ere politxa izan bihar da.

Oraiko kafetegia

BERISTAIN EDARI BANATZAILEA

- Coca Cola
- Keler garagardoa
- Alzolako Ura
- RAM esnea
- Codorniu
- Ardoak eta edariak

Iñaki ☎ 74 38 27

imanole

GOZOTEGIA

San Frantzisko 44, 74 41 37

Morkaikoren 50 urteak biltzen dituen liburua kalean

Morkaiko Mendizale Elkartea, 50. urteurreneko ospakizunak burutzen ari da aste honetan zehar. Asteartean, hilak 16, Morkaikoren 50 urteetako historia biltzen duen liburuaren eta argazki erakusketaren aurkezpena egin zuten Kultur Etxean. Ekitaldiaren ostean, Iñurrategi anaiek Makalu mendira igoyerari buruzko diapositibak eman zituzten.



50. urteurrena dela eta, liburuak kaleratu eta argazki erakusketak antolatu dute.

Kultur Etxean egin zen Morkaikori buruzko liburuaren aurkezpenean, lana egiten jardun duten Jasone Osoro eta Myriam Aldazabal, Morkaikoren lehendakaria den Andoni Goikolea, Jose Inazio Elkoro-Iribe alkatea eta Mendi Federazioko Lehendakaria, Pako Iriondo izan ziren. Myriam Aldazabalek, Agur Miren Barandiaranek eta Jasone Osorok, liburua osatzeko izan dituzten gorabeheren berri eman zuten. Bertan agertzen diren testuak Morkaikoko kide direnen ahotik jasotako testigantzei esker idatzi dituzte eta

argazkiak ere, banan banan, bazkideen artxiboetatik eta elkarte artxibotik lortu dituzte. Liburuaren 200 ale, mendi elkarteetara bidali dituzte eta gainontzeko 800 aleak, salgai daude 1000 pezetako prezioan.

Argazki erakusketak zabalik dago jadanik eta, hilaren 28ra arte egongo da irekita. Guztira 60 argazki eta zenbait dokumentu eta domina ikusi ahal izango dira. 50. urteurrena ospatzeko ekintzak astebukera honetan eta datorren astean zehar

luzatuko dira. Ostiralean, hilak 19, dipositiba saioa izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan. Igan-dean, egun berezia ospatuko du Morkaikok. Egurdiko ordubata t´erdietan elkarte lehendakari izan direnei omenaldia egingo zaie eta gero, bazkari herrikoia egingo da Ikastolako pilotalekuan. Datorren ostiralean, hilak 26, Rikardo Arregiren diapositiba emanaldia izango da Udaletxeko Biltzar Aretoan iluntzeko 7,30etan.

EMAITZAK

Futbola

Las Arenas 0 - Elgoibar 1 (3. maila)
 Elgoibar 0 - Mutriku 0 (2. errejionala)
 Elgoibar 1 - Sporting Herrera 2 (Jubenilak)
 Ordizia 4 - Elgoibar 1 (Kadeteak)
 Elgoibar 4 - Arantzazuko ama 1 (Infantilak)
 Elgoibar 1 - Aretxabaleta 0 (Neskak)

Eskubaloia

Mundaiz (Donostia) 15 - Elgoibar K.E.E.T. 19 (Kadeteak)
 Lancia (Ormaiztegi) 16 - Elgoibar K.E.E.T. 36 (Jubenilak)
 Elgoibar K.E.E.T. 6 - C.D. Bidebieta 17 (Neskak)

Areto futbola

Aloñamendi 1 - Elgoibar A.F. 5 (1. maila)
 Nerea Sport (Zarautz) 3 - Elgoibar A.F. 3 (2. maila)

DATOZEN PARTIDUAK

Futbola Mintxetan

LARUNBATA 20

12,00: Elgoibar K.E.-Bergara (Kadeteak)
 16,30: HAUNDI- Amurrio

IGANDEA 21

10,00: Urki-Urola (Jubenilak)
 12,00: Eibartarrak - Gazteak (Jubenilak)

Futbitoa Urasandin

IGANDEA 21

10,00: Lanbroa-Karkis Oraiko cafe - Chelsea
 11,00: Pedrusko-Kosakos Hunde Verboten-Xirula
 12,00: Resto del Mundo-Berrogei duro Mimox-Arroak

Areto Futbola Kiroldegian

10,00: Elgoibar F.S. - Pradisa (1. maila)
 12,00: Elgoibar F.S. - Bar Ainhoa (2. maila)

EIBARKO LIBURU AZOKA

... Azaroraren 12tik 21era ...

ORDUTEGIA

• Lanegunak:

Goizez 11,30 - 14,00

Arratsaldez 17,30 - 21,30

• Jaiegunak:

Goizez 12,00 - 14,30

Arratsaldez 17,30 - 22,00

ERAKUSLEEN ZERRENDA

- GAKOA-REVOLUCION
- GAIZKA
- LIBROS MAS PEQUEÑOS DEL MUNDO
- EUROLIBRO
- BIDEA 2000
- ESPASA CREDITO S.A.
- BILINTX
- URRETXINDORRA
- ZABALTZEN
- ELKAR
- RAMOS
- ETXEPARE
- MAKOKI
- HEGAR
- 2001
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
- EIBARKO UDALA
- GOITZI

● ANTOLATZAILEA

Euskadiko Liburu Azoken Batzordea
Bizkaiko Liburu Saltzaileen Elkarteá
Gipuzkoako Liburu Saltzaileen Elkarteá
Euskadiko Editoreen Elkarteá
Euskal Editoreen Elkarteá

● BABESLEA

Eusko Jaurlaritza
Kultura saila

● LAGUNTZAILEA:

Eibarko Udala - Kultur Arloa

*Azken
egunak*

Musika ekitaldiak Santa Zeziliaren omenez

Azaroaren 22an, Santa Zezilia eguna dela eta, hainbat ekintza burutuko dituzte herriko zenbait elkartek. Goizeko 8,30etan Ikastolako OHoko 1go mailatik 8. mailara arteko haurrak Plaza handian bilduko dira, ondoren, herria kalejiran zeharkatzeko Ikastolara heldu arte. Arratsaldeko 4,30etan, Ikastolatik irten eta kalejiran joango dira Foruen plazaraino, bertan zenbait bertso abestuko dituztelarik. Iluntzeko 7,30etan, Ikastolako 7. eta 8. mailako haurrek pieza batzuk joko dituzte kalean zehar.

Igandean, Bandaren kontzertua

Santa Zezilia eguna dela eta, ohi bezala, Udala

Musika Bandak ospakizun berezia egingo du. Igandean, hilak 21, goizeko 9,30etan Santa Klarako komentuan izango den mezan hainbat eliz obra joko dituzte. Beranduago, 10,30etan, herriko kaleak zeharkatuko dituzte kalejiran. Eguerdia partera, 12,30etan hain zuzen, Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia emango dute Ikastolan. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean 6 obra joko dituzte. Batzokian egingo duten anaiarteko bazkariarekin amaituko dute eguna.

Aurten, astelehena bada ere Santa Zezilia eguna, igandean egingo ditu Musika Bandak Santuaren omenezko ospakizunak. Garai



AZKUJE

Ikastolako haurrak entsaiu egun batean.

batean, berriz, Santa Zezilia eguna igandea, osteguna zein larunbata izan, tokatzen zen egunean egiten zuten jaieguna. Bandako kideek jai hartzen zuten lantokian eta ezin hobeto pasatzen zuten eguna. Urte-

ro egiten zuten Santa Klaran meza, kalejira, bazkaria eta arratsaldean Plaza handiko dantzaldia. Gaur egun, modu apalagoan ospatzen dute Santa Zezilia eguna; halere, ondo pasatzeko arrazoiak ez dira falta.

SAINT - GERONS

Txokolateak



75 5115

Azpilgoeta, 37 Mendara

20 Larunbata

11,00 SOZIOLINGUISTIKA
IKASTAROA (4. saioa)

Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

19,30 ZINEA

"Memorias de un hombre invisible"
Zuzendaria: Jhon Carpenter
Tokia: Udaletxeko biltzar aretoa.
Antolatzailea: Ongarri Zine kluba

21 Igandea

09,30 MEZA MUSIKA
BANDAREKIN

Tokia: Santa Klara Komentua

10,30 BANDAREN KALEJIRA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA
Tokia: Ikastola

12,30 MEZA NAGUSIA
Morkaiko M.E.ko hildako
bazkideen omenez.

13,15 OHOREZKO AURRESKUA
Haritz Dantza Taldearen eskutik.
Morkaiko M.E.ko Lehendakari
izan direnei omenaldia eta
ondoren oroigarriaren
desestaltzea.

14,30 BAZKARI HERRIKOIA

Tokia: Ikastolako frontoia.
Antolatzailea: Morkaiko M.E

17,00-19,30 ZINEA

"Memorias de un hombre invisible"
17:00 etako saioaren prezioa: 150 pta.

22 Astelehena

Santa Zuzilia eguna

08,30 IKASTOLAKO
HAURREN KALEJIRA

Tokia: Plaza handia

16,30 IKASTOLAKO
HAURREN KALEJIRA ETA
BERTSO SAIOA

Tokia: Plaza handia

19,00 IKASTOLAKO
HAURREN KALEJIRA

24 Asteazkena

19,00 SOZIOLINGUISTIKA
IKASTAROA (5. saioa)

Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

25 Osteguna

18,00 NAZIOARTEKO XAKE
TXAPELKETA

Antolatzailea: Zubi-Ondo elkarte,
Udala eta Foru Aldundia.
Tokia: Kultur Etxea.

26 Ostirala

19,30 DIAPOSITIBA EMANALDIA
Emalea: Rikardo Arregi
Tokia: Udaletxeko Biltzar Aretoa
Antolatzailea: Morkaiko M. E.

Z I N E A

"Memorias de un hombre invisible"

Pelikula hau persekuziozko thriller erromantiko eta zentzugabea da. Karismadun tipo batek agudezia handitu eta gauza arriskutsuak egitera behartzen du protagonista, beti ere emakume baten laguntza izango duelarik. Bapatean protagonista amets baten ondoren esnatu eta ikustezina dela ohartuko da. Egoera honek egonezin handia sortuko du protagonistarengan.

Z I N E A

Artegi LEHIAKETA

AZAROKO GALDERA: Elgoibarko Elkarte ezagun batek bere 50. urteurrena ospatzen du aurten. Ba al dakizu zein elkarteri buruz ari garen?.....

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Azaroak 29an **SAMSUNG** Mikrouhin labe bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzenon artean. (Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Etxebizitzak

Errosario kalean etxebizitza bat alokatzeko daukat.
Tel. 74 17 95

Etxe bat saltzen dut Urasandin.
1. pisua. **Tel: 75 51 69**

Bi gela eskeintzen ditut. Lo eta erropak garbitu. **Tel. 74 09 44**

Lana

Frantseseko klaseak ematen ditut maila guztietan, Frantsesa naiz eta tituloa dut. Emakumeekin mintzamenaren lantzeko talde bat sortu nahi nuke arratsaldeko 3etatik - Setara bitartean. **74 04 59**

Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. **74 05 34**

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak egiteko prest nago. **Ainhua 74 16 89**

Marrazketa Teknikoan arazoak baldin badituzu klase partikularak emateko prest nago. EFP eta BTIko ikasleei.
Deitu 12:30etatik 2:30etara 74 04 69 zenbakira

Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Esperientziaduna eta Eibarko erresidentzian hilabeteko praktikak egin ditut. **74 23 30 Elena**

Haur bat zaintzeko prest nago. **Lorea 74 28 53**

Salerosketak

Brother trikotosa bat saltzen dut. bigarren eskukoa. Marrazkiak egiten ditu kolore askorekin. Prezio merkea.
Tel: 74 18 51

Anayak etxean garaje bat alokatzen da. Bi kotxerentzat. "Altillio" du. Almazenerako aproposa. **74 34 65**

San Antolin auzoan, taberna ondoan, lokala daukat alokatzeko. **Tel.:74 17 95**

Bigarren eskuko kotxe bat erosiko nuke. Citroen C 15 furgoneta edo antzeko zerbait. Diesela. **Deitu: 74 36 34**

San Roke bailaran terreno batzuk salgai ditugu. **74 39 89 Rufina**

Bi bizikleta BH tolesgarriak saltzen ditut. 16.000 pta biak. **74 04 59**

Ford fiesta XR 2 salgai. SS-5581-V. Oso ondo zainduta. **Deitu 74 13 46**

Karrerretarako bizikleta bat salgai. Berri-berria. "Mendiz" markakoa. **Tel. 74 10 93**

Musika ekipo bat saltzen dut. Irratia, ekualizadorea, pletina bat eta tokadiskoa. 25.000 pta. **Deitu 74 03 55 Iñigo**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari: 74 21 35 / 22 10**

Botadun patin pare bat saltzen dut. Paraleluak. 36 zenbakia. **Koldo: 74 12 85**

Kawasaki GPZ 500 S SS-AJ 10.000 km. **Tel. 74 28 32**

Sukaldeko altzariak salgai. XEY markakoak. Erabili gabeak. Prezio ezinhobea. **Amaia Tel.:74 09 23**

Eskela, eskertza eta urteurrenentzako espazioa daukazu BARRENen.

Deitu asteazkenak baino lehen 74 41 12 telefonora.

BEGIRALE IKASTAROA

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartek **Begirale ikastaro** bat antolatu du herriko gazteei zuzendua.

-Baldintzak: Elgoibarkoa izatea. Adina: 18-25 urte bitartean edukitzea.

-Noiz: 1994 urteko urtarriletik maiatzera.

-Ordainketa era: Beka sistema.

-Informazioa eta izena emateko: Elkarteak Ubitarten duen lokalean. (74 16 26)
Azken eguna: abenduaren 10a.

Ikastaroa amaitzen dutenek Begirale titulua jaso eta aisialdiko ihardueretan lan egiteko aukera izango dute.

SEAT TOLEDO



Orain SEAT TOLEDOk merkatuko baldintzarik hoberenak eskaintzen dizkizu

Ez uko egin ezeri. TOLEDOak aparteko prestakuntzak eta puntako teknologiak duen kontsumoa eskaintzen dizu. Dena zure neurrirako ekipamenduarekin:

- ABS freno sistema.
- Direkzio lagundua.
- Aire egokitua.
- Leiho igogailu elektrikoak.

Kotxe eder bat oso prezio onean. Ekonomiaz disfruta dezazun. Aldatu kotxea. Ez bizimodua.

Nahiago baduzu, FISEATEk eskaintzen dizun ordainketa era aprobetxa dezakezu.

SEAT
Bai

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42. EIBAR